

LITERATURA: LEKUKOAK

J. LIZARRAGA ELKANOKOAREN LIBURU AURKEZPENA

Iruñea, 1979, Urriak 22

Fr. Luis Villasante

Jaun-Andreak:

Edo guztiz oker nago, edo gaur ospatzen dugun aurkezpena mugarri antzo geldituko da Euskaltzaindiaren kondairan. Urrats handi bat eman zeneko eguna bezala, alegia.

Lizarraga Elkanokoaren liburua alde batetik, eta Euskal Herriko Udalen Izendegia, bestetik, aurkezten eta kaleratzen baitira gaur. Izendegiarena geroko utzirik, beste liburuaren argitalpenak duen garrantziaz hitz bat esan nahi dut.

Aspaldidanik zuen Euskaltzaindiak asmo hau: nolabait gure hizkuntzaren iturri eta testigu direnen liburu bilduma bati hasiera emateko asmoa. Edonork ikus lezake zein beharrezko den hizkuntza batentzat horrelako testu bilduma bat edukitzea. Gaur Euskal Herriko Unibertsitateetan Euskal Filologi Sailak sortzen dira, baina hango ikasle eta irakasleek, edizio egokiak falta direlako, ez dakite askotan nora jo, ez dituzte, alegia, eskuetan behar diren tresnak. Euskal autoreak aztertzekeo edizio berriak eta egokiak gehienetan ez daude.

Gauza bera gertatzen zaie idazle, hizlari, ikastoletako, gau eskoletako eta beste euskal maisu izan nahi dutenei, eta hitz batean esateko, euskararen ezagutzan pixka bat barnera jo nahi duenari. Izan ere, ez da aski gramatika bat, metodo bat eta euskarazko liburu bat edo beste ezagutzea. Hizkuntzaren iturrietara, erroetara ere jo behar da, hizkuntza sustraitik menderatuko bada.

Eta zein dira iturri horiek? Besteak beste, hizkuntza hura, batez ere izkribuz, landu zuten idazleen obrak. Horre-

gatik hizkuntza landu denetan egon ohi dira autore klasikoen kolekzioak, eta horietara jotzen dute hizkuntza hura errotik eta sakonki ikasi nahi dutenek.

Guk ere zerbait horrelako nahi genuen egin. Baina Euskaltzaindiak, orain arte, behintzat, diru eskasiagatik, ez du bere asmo handi hau aurrera eramateko biderik izan. Orain badirudi denbora berriak datozela. "Bai Euskarari" kanpainak diru laguntza zerbait ekarri dio, eta bertatik bere asmo zaharra martxan jarri du. *Euskararen Lekukoak*, hau da, testiguak, deitzen den liburu bilduma sortu du. Liburu bilduma horretan agertu nahi ditugu pixkaka-pixkaka, eta horretarako langile trebeak aurkitzen ditugun neurrian, mende guztietako eta euskalki guztietako autore hautatuen lanak, edizio fidagarrietan, noski, testu zehatz eta kritikoetan. Argitalpen horiek behar bezalako sarrera, ohar, hiztegi eta bestelako argibidez jantziak etorriko dira.

Ikusten duzenez, asmo hau urrutira begira hartua izan da, eta gerorako ondorio bikain-luzeak izan ditzake. Nahi dugu, alegia, gure hizkuntza, ez gaingiroki eta azaletik, baizik sakonki eta errotik ezagutzeko, behar bezalako tresnak gure ikasle-irakasle, idazle eta abarren eskuetan ipini.

Eta hain zuzen, *Lekukoak* bildumaren lehen alea edo zenbakia gaur ateratzen da kalera.

Ongi etorria ematen diot bihotz-bihotzez liburu honi eta eskerrik beroenak edizioaren prestatzaileari, Juan Apezetxea jaunari.

Lehen liburu hau argitaratzeko, bai Príncipe de Vianak eta bai Euskaltzaindiak, nork bere aldetik, parte hartu dute, gainera.

Liburuari buruz ez naiz xehetasunetan sartuko, zeren edizioaren prestatzailea bera segitun mintzatuko baita horretaz.

Señoras, señores:

Creo sinceramente que el acto que hoy celebramos marca un hito en los anales de Euskaltzaindia, por cuanto constituye el principio de una iniciativa que puede estar preñada de consecuencias para el futuro del euskara. Dicho con otras

palabras, creo que la significación de este acto rebasa con mucho la de las preentaciones ordinarias de libros. No es uno sino dos los que hoy se presentan aquí al público: la edición de Joaquín de Lizarraga y la del Nomenclátor de los municipios del País Vasco en su versión euskérica. Pero no es por eso tampoco, o sea, porque se trate de dos libros en lugar de uno, por lo que este acto entraña la alta significación que he dicho.

Dejando para luego el referirme al Nomenclátor de los municipios del país, voy a limitarme ahora a subrayar la importancia que reviste la aparición del libro de Joaquín Lizarraga en edición preparada por D. Juan Apecechea.

Cualquiera conoce la importancia que en toda lengua de cultura se concede a los clásicos de dicha lengua, a los autores que han sobresalido en el cultivo de la misma. Es un hecho que en todas estas lenguas existen colecciones de los autores clásicos de la misma, y que el estudio de dichos autores desempeña un papel de primer orden y aún resulta indispensable para la profundización del idioma, para lograr la identificación con el genio y alma del mismo, etc.

Aunque sea en un rango más modesto, también el euskara tiene sus autores. No les hemos querido llamar con el pomposo nombre de clásicos, sino con una denominación más humilde: "Testigos de la lengua". El tener a mano ediciones de ellos, hechas con las debidas garantías, provistas de introducciones, notas, vocabularios, etc. que orienten al lector estudioso, se había convertido en una necesidad a la que había que atender urgentemente. Hoy en las Universidades del país hay cátedras de filología vasca, donde se echan de menos estos instrumentos. Los estudiosos del idioma, los escritores, etc. carecen de oportunidades para conectar con estas fuentes, porque faltan ediciones recientes y adecuadas de la mayoría de ellas. Existen sí algunas ediciones que han aparecido de forma aislada, esporádica y un tanto anárquica, aquí y allá. Es verdad que también la colección Hordago ha reeditado en edición facsímil una veintena de estos libros. Sin negar la utilidad de estas iniciativas, hay que reconocer que se deja aún sentir la falta de una colección que aspire a publicar sistemáticamente en ediciones fidedignas y adaptadas a las modalidades de hoy y enriquecidas con los debidos admi-

nículos, estos autores, cualquiera que sea su dialecto, variedad, siglo y época.

La Real Academia de la Lengua Vasca —Euskaltzaindia—, consciente de este vacío, acordó crear la colección “Testigos del Euskara” / “Euskararen Lekukoak”, con el fin de subsanar esta falta. Naturalmente, para poder realizar o llevar a cabo este ambicioso proyecto, hacía falta contar con medios económicos, hacía falta que hubiera en cada caso personas capacitadas e idóneas para preparar las susodichas ediciones, etc. Será inevitable que la cosa marche un tanto despacio, porque no siempre se cuenta con los medios citados; pero está ya en marcha. Por eso decía que éste era un día histórico.

Hoy sale a la luz el primer número de “Euskararen Lekukoak”, dedicado precisamente a un autor navarro, testigo casi único del dialecto alto navarro meridional. Ello ha sido posible porque contábamos con un especialista excepcional, consagrado desde hace años al estudio de este autor: el señor Apecechea. Por lo demás, no voy a extenderme sobre las características y valores específicos de este primer volumen de la colección, porque sobre todo ello disertará a continuación el mismo Sr. Apecechea. Sólo quiero advertir que en este caso se trata de una coedición, realizada entre *Príncipe de Viana* y *Euskaltzaindia*.

La colección *Lekukoak* inicia hoy su andadura. Por ello me felicito a mí mismo y felicito y doy gracias a cuantos han trabajado en este primer volumen o de cualquier modo han contribuido a su aparición.

**J. LIZARRAGA, "DOCTRINA CHRISTIOAREN GAIN - FEDE
CHRISTIOAREN GAIN"**

Iruñea, 1979-X-22

Juan Apecechea Perurena

Gaur aurkezten dugun liburuaz mintzatu baino lehen, agian komeni izango da aurretik beste zerbait gogoratzea: nola hasi nuen nik Lizarragari buruzko ikerketa, alegia.

Orain dela bost bat urte, Gasteizko Teologi Fakultateak Jose Zunzunegi jaunaren alde omenaldi bat antolatzea erabaki zuen, eta horretarako irakasle guztioi gure lankidetasuna eskatu zigun. Nire espezialitateko alorretik, hau da, Biblia aldetik zerbait prestatzea pentsatu nuen lehendabizi. Baina Iruñeko Apezgaitegiko Liburutegian gordeta zeuden Lizarragaren eskuidaztiez oroitu nintzen bapatean.

Haietako kodize bat irakurtzen hasi nintzeneko, harriturik eta pozbiziturik gelditu nintzen. Berehala nabaritu bait nuen, ez zirela nolana hiko idazlanak, taxuz eta garbi egitura tuak baizik, irakaspide aldetik trinkoak eta bibli aipamenei buruz aberatsak.

Zunzunegi jaunaren omenaldirako sermoi bat argitaratu egin nuen nire lehenengo azterketa. Azterketa honek eztenkatu zuen nire jakinmina eta hala lanari jarraitu nintzaion. Hogei sermoiko sail bati ekin nion orduan. Ohartu nintzen, Lizarragaren ikasketak edo formazioak, bai teologi aldetik bai humanismo aldetik, haren garaiko apezena aisa gainpasatzen zuela. Bitartean haren obra eta nortasunarenganako nire zaletasuna hazten zihoan. Baina biografiari buruz oso datu gutxi ezagutzen nituen oraindik, euskal literaturako historian ikasi nituen bakar bakarrak. Historigileak, bestalde, ez zetozen bat datu batzutan.

Haren bizitzako gorabeherak ugariago ezagutzera jo nuen orduan. Aitortu beharra dut, zoria nire alde izan nuela

eginkizun honetan. Izan ere bizitzaren hutsune eta ikuspegi garrantzitsuenak argitzen zituzten oinarritzko dokumentu franko aurkitzeko mentura izan nuen. Artxibuetako nire ibilketak, hau da, Elkanoko Artxibu Parrokialean, Nafarroako Artxibu Generalean, Iruñeko Elizbarrutiko Artxibuan, Loiolako Artxibu Historikoan, Artxibu Historiko Nazionalean eta Iruñeko Apezgaitegiko Artxibuan, emaitza ugariak lortu zituzten. Emaitza hauekin gertutu nuen iazko urtearen hasieran Principe de Vianak argitaratu zuen biografia.

Liburu haren sarreran, hain zuzen, nire lehendabiziko lana aldez aurretiko atezubi bat besterik ez zela adierazten nuen, eta Lizarragaren idazlanak argitaratzea zela inportantea. Hala gertatu da zorionez, eta nik susmatuko nuen baino lehenago gainera. Liburu hau bi erakunde hain gailen eta ospe handikoen babespean argitaratua izateak, Euskaltzaindia eta Institución Príncipe de Vianaren babespean, alegia, nire atsegin biziena agertzera behartzen nau.

“Fede christioarén gáin”

Lau zatitako eskuidazti baten lehendabiziko osagaia da, gaur aurkezten dugun liburua. Lau zatien izenburuak hauek dira: I. “Fede christioarén gáin”. II. “Mandamentuen gáin”. III. “Sacramentuen gáin”. IV. Oracioarén gáin”. Lau zati hauek osatzen dute idazlan osoa, hau da, “Doctrina christioarén cathechima”.

Bere apezministeritzako lehenengo hamar urteren buruan, mila zazpirehun eta hirurogeigarren eta laurogeigarreneko bitartean, gai beraz ugari idatzi zuen Elkanoko Bikarioak. Bi kodize larritan bildurik dago lan hori, eta hogeitau urteren buruan erabili zuen bere predikugintzan. Baina mila zortziehun urte inguruan, lehendabiziko gaiak berriro lantzea erabaki zuen, horrela bere iharduera autokritiko eta berritzailea erakutsiz.

Beste bi kodizetan bildu zuen lan berria, lehenengoa mila zortziehun eta hirugarrenekoa eta bigarrena zazpi urtez geroagokoa.

Bi eskuidazti hauen artean argitapenerako bat aukeratzekoan, bigarrenak zehatzago zigula idazlearen neurria

iduritu zitzaidan, bai pentsaketa aldetik, baita literatura eta hizkuntza aldetik ere. Eta hori hala da, nahiz berak lan berriaren mugapena hitz hauekin aitortzen duen: "Eztút escritu cergátic dauden óngui alá, baicic cergátic obedén, naiz alá, ezi bateréz".

Beste zerbait adierazi nahi nuke argitarapenari buruz. Egokiago iduritu zait idazkiak sistematikoki argitaratzea. Beste erizpide bat izan zitekeen, lorategi bat eratzea literatura edo linguistikari buruzko testu aukeratuekin. Erizpide hau ere bidezko eta baliogarria da noski. Baina aurrez egindako argitarapen sistematikoak hobeki erakutsiko digu beharbada haren neurri justua predikari edo eta idazle bezala.

Idatzaldaketa

Nire lehendabiziko eginkizuna idatzaldaketa edo transkripzioa prestatzea izan da, hau da, jatorrizko testua zehazki birtsortzea. Zientziari buruzko zehaztasunak edo zorroztasunak, lexikografia ala fonologiaren alorrean egin daitezkeen azterketei begiratuz, hala eskatzen zuen noski. Azentuen transkripzioan ez huts egiten saiatu naiz batez ere. Hala ere agian okerren bat iragazi izango zait. Bestalde, textuan ere ba dira Lizarraga beraren huts batzuk; eta ez da harritzekoa eskuidazketa hain zabalean hala gertatzea.

Itzulpena

Itzulpenari buruz, Elkanoko Bikarioaren idazlanek euskarari buruzko balioa eta muga gainditzen dutenez gero, komenigarria iduritu zait gaztelaniara itzultzea. Bestaldeko erizpideak ere izango dira noski. Baina euskarari kalterik ez egiteaz gain, gure kultura eta gure hizkuntzaren zabalkunde eta osperako izanen ahal da itzulpen hau.

Oharrak

Oharrei buruz, ia beti bibli aipamenak dira. Batzuetan ez dira adierazten jatorrizko textuan, eta besteetan osagabe-

turik agertzen dira. Nik osatu besterik ez ditut egin. Hizkuntza aldetik ere ba dira bakar batzuk.

Hiztegia

Liburuaren azkeneko hogeit hamar orrialdeetan hiztegitxo bat eratu dut. Han ohar erazten nuen bezala, argitaratutako eskuidaztian agertzen diren hitz bakarrak eta hauei dagozkion adierazpen soilak bildu ditut. Egunen batean Lizarragaren hiztegia osatuko bada, haren beste idazkien argitarapenari itxoin beharko zaio. Eginkizun horretarako, benetan baliotsua izango da azken aldi honetan Iraizozko aita Polikarpok egin duen lana.

Azkena

Bukatzeko esan nahi nuke, Elkanoko Bikarioari egiten diogun omenaldia izan nahi lukeela liburu honek; baita, haren izenean, beste hainbeste Nafarroako euskal idazleei ere, nahiz hauen idazkiak askotan gureganaino zoritxarrez iritsi ez izan. Haien oroipena haizeratuz eta berrituz, esnaraziko ahal dugu nolabait Nafarroaren euskaldun izatea.

J. LIZARRAGA, "DOCTRINA CHRISTIOAREN CATHECHIMA - FEDE CHRISTIOAREN GAIN"

Antes de referirme a la obra de Lizárraga que hoy presentamos, quizá sea útil recordar ante Uds. los orígenes de mi dedicación al estudio de su persona y de su obra literaria. En efecto, en estos últimos cinco años le he dedicado largas horas de mi tiempo en medio de mis actividades habituales.

La pequeña historia comenzó en el año 1974. La Facultad de Teología de Vitoria decidió hacer un homenaje póstumo a D. José Zunzunegui, que había sido decano de aquella Facultad. A todos los profesores se nos invitó a colaborar en el homenaje. Me puse a pensar cuál podría ser mi aportación desde el campo bíblico, que era el de mi especialidad. Pero de

pronto me acordé de unos códices de Lizárraga, guardados en la Biblioteca del Seminario de Pamplona. Quince años antes me los había mostrado por primera vez D. Blas Fagoaga, conocido estudioso y amante de la lengua y de la cultura vascas. El mismo había publicado unos años antes un breve trabajo sobre el vocabulario del vicario de Elcano.

Eran cuatro códices, escritos con letra pulcra y clara entre finales del siglo dieciocho y principios del diecinueve. Contenían los numerosos sermones que, en el transcurso de su dilatado ministerio parroquial durante sesenta y tres años, Lizárraga había predicado en su pueblo natal de Elcano y en algunos otros pueblos del valle de Egüés.

Cuando inicié su lectura, mi primera sorpresa fue constatar que eran escritos muy bien elaborados. Estaban divididos y numerados en sus distintas partes, estructurados con orden y claridad, densos en doctrina y ricos en citas bíblicas. Su euskara, por otra parte, me resultaba fácilmente inteligible y hasta familiar. Los cuatro códices iban precedidos por breves prólogos, en los que el autor exaltaba la importancia fundamental de la predicación y de la instrucción catequética.

Uno de los sermones tenía como tema inculcar la responsabilidad de los cristianos en conocer, estimar y llevar a la práctica la doctrina cristiana. Es allá donde dice estas palabras: "Au dá zuén chsaquintasún cerúcoa, daramána aimbérce avantálla chsaquintásun lurrecoéi, nola iruzquiarén ár-guiac chrisallubatenái".

Me pareció que sacar a la luz este sermón podía ser mi mejor aportación al homenaje del Sr. Zunzunegui, dada su condición de euskaldún. Así lo hice. Publiqué el texto original, acompañado de la traducción castellana y precedido por unos breves datos sobre la persona y la obra de Lizárraga.

Este primer trabajo estimuló mi interés por el autor. Empecé entonces la tarea de transcribir u analizar veinte sermones de uno de los citados códices. Se trataba de un comentario teológico y pastoral sobre los artículos del Credo, hecho con rigor. Este esfuerzo me aproximó más al autor.

Descubrí que su talla teológica y humanista superaba el nivel medio de formación de los eclesiásticos de la época.

Pero a estas alturas, apenas conocía más que unos escasos datos biográficos sobre él. Los había leído en las obras más recientes sobre la historia de la literatura vasca. Generalmente apenas le dedicaban una página y, además, sobre algunos datos no concordaban unos autores con otros. Coincían en afirmar que había nacido en Elcano el año 1748 y que en 1835 había muerto en el mismo lugar, después de haber estado vinculado a la Compañía de Jesús y después de haber ejercido el ministerio sacerdotal durante largos años en la misma aldea. El más generoso entre los historiadores se mostraba, sin duda, el P. Villasante. Le dedicaba estas elogiosas palabras: "La figura de Joaquín Lizárraga destaca como gigante solitario en Navarra. En efecto, él es el único escritor navarro de la época que vamos historiando. Impresiona verdaderamente la producción de este autor por su magnitud y copia. Mas toda esta producción quedó inédita, ya que nada se publicó en vida de él, y aun hoy la mayor parte continúa sin ver la luz pública. Los escritos de Lizárraga revisten, además, particular interés por ser los testigos más importantes de una variedad vasca hoy desaparecida, a saber, el dialecto altonavarro meridional, tal como se habla en los alrededores de Pamplona".

Antes de estas escuetas referencias de los historiadores actuales, le habían prestado su atención y su entusiasmo, en primer lugar, como es conocido, el príncipe Bonaparte, luego Azkue, más tarde el P. Dámaso de Inza, D. Angel Irigaray y D. Blas Fagoaga, y finalmente el P. Policarpo de Iráizoz, el P. Ondarra y D. José M. Satrústegui.

El interés mostrado por figuras tan prestigiosas, por una parte, y el atractivo que en sí había suscitado la lengua de su obra, por otra parte, estimularon mi tarea de investigación. Me interesé entonces por su biografía. Debo confesar que en esta tarea me acompañó la suerte. En efecto, en distintos archivos fui encontrando fuentes fundamentales que iluminaban los momentos y aspectos más importantes de su vida.

En el *Archivo Parroquial de Elcano* encontré datos para conocer su familia, su cronología personal, el movimiento

administrativo y pastoral de la parroquia de Elcano durante su ministerio y los duros trances de la Guerra de la Independencia.

En el *Archivo General de Navarra* hallé una documentación de gran interés sobre el estado de bienes de su casa nativa, sobre su patrimonio personal y sus disposiciones testamentarias.

Algunos libros y legajos del *Archivo Diocesano de Pamplona* me proporcionaron datos sobre sus órdenes sagradas y sobre su nombramiento como vicario de Elcano.

Algunos documentos del *Archivo Histórico de Loyola* constituyeron una fuente preciosa para conocer los pormenores de su pertenencia a la Compañía de Jesús y de su inicial marcha hacia el destierro.

En el *Archivo Histórico Nacional* pude hallar datos nuevos sobre su pertenencia en el colegio de jesuitas de Pamplona, sobre sus estudios humanísticos y sobre su vida como estudiante.

Finalmente, algunos papeles sueltos del *Archivo del Seminario de Pamplona* me proporcionaron datos sobre su prestigio científico entre el clero y, como consecuencia, la propuesta de su nombramiento como preceptor de Humanidades en el nuevo Seminario de Pamplona.

Con todos estos datos puede elaborar la biografía, publicada por Príncipe de Viana a principios del año pasado. Decía entonces en el prólogo, que la biografía tenía en mi ánimo un carácter preparatorio y preliminar, ya que lo importante era sacar a la luz pública la producción literaria del autor. Afortunadamente así ha sucedido y, además, antes de lo que yo mismo hubiese pensado. Quiero expresar aquí mi satisfacción, porque la obra ha sido publicada bajo el auspicio de dos instituciones tan relevantes y prestigiosas como Euskaltzaindia y la Institución Príncipe de Viana.

"Fede christioarén gáin

Esta obra que hoy presentamos es la primera parte de las cuatro que constituyen su obra general "Doctrina Chris-

tioarén Cathechima". Los títulos de las cuatro partes son: I. "Fede christioarén gáin". II. "Mandamentuen gáin". III. "Sacramentuen gáin". IV. "Oracioarén gáin". La obra entera es un espléndido comentario de las cuatro partes del Catecismo Romano de Pío V, dirigido a las gentes campesinas de una aldea.

En los primeros años de su ministerio parroquial, más o menos entre 1770 y 1780, había escrito ya un amplio comentario sobre los mismos temas en forma de sermones. Se conserva en dos voluminosos códices. Lizárraga empleó este material para su predicación a lo largo de unos veinte años. Pero hacia el año 1800 se propuso reelaborar toda su obra anterior, demostrando así su espíritu autocrítico y su capacidad de renovación. Escribió esta segunda obra aproximadamente entre los cincuenta y setenta años de edad. Se encontraba, pues, en la plenitud de su madurez, si se tiene en cuenta que murió a los ochenta y seis años.

Recopiló toda su nueva labor en dos cuidados códices, fechados en 1803 el primero y en 1810 el segundo. La obra que presentamos está entresacada del primero de ellos.

A la hora de pensar en elegir sus manuscritos para la publicación, nos ha parecido que éstos últimos representaban mejor su madurez desde el punto de vista del pensamiento y también desde el punto de vista literario y lingüístico. Bien es verdad que el mismo autor reconoce modestamente, que sus escritos no pretenden ser un modelo de perfección: "Eztút escritu cergátic dauden óngui alá, baicic cergátic obedén, naiz alá, ezi bateréz".

Quiero advertir, por otro lado, que me ha parecido conveniente publicar su obra de una manera sistemática. Digo esto, porque puede haber criterios distintos. Por ejemplo, el de publicar una antología con los escritos de mayor interés desde el punto de vista literario y lingüístico. Pienso que esta labor es legítima y útil. Pero, en mi opinión, era conveniente hacer antes una publicación sistemática y representativa de toda la producción literaria. Sólo así podremos conocer la talla exacta del autor como hombre, como predicador y como escritor.

Transcripción

Mi primera labor ha sido la de reproducir el texto, respetando escrupulosamente la ortografía del manuscrito. Me ha parecido que el rigor científico aconsejaba este criterio en previsión de posibles trabajos de investigación en el campo de la lexicografía o de la fonología. He puesto especial cuidado en no omitir ningún acento que, como es sabido, tiene tanta importancia en nuestro autor. Sin embargo, quiere advertir que, además de los posibles defectos de transcripción, al propio autor se le han podido escapar algunas erratas, lo cual no es extraño tratándose una obra tan vasta. Quiero advertir también, que Lizárraga emplea abreviaturas muchas veces en aquellas palabras que se repiten con más frecuencia. Así ocurre, por ejemplo, en las flexiones de "Jaungoico" y "Christo". Lógicamente en estos casos de abreviación no se representan los acentos. Al resolver o explicitar estas abreviaturas, tampoco yo los he representado.

Traducción

En cuanto a la traducción castellana que acompaña al texto original, me ha parecido que era conveniente hacerlo así. Sé que para algunos puede ser discutible esta decisión. Pero, en mi opinión, no era justo reducir el área de difusión de una obra, cuyos valores desbordan los del campo estrictamente lingüístico. Espero que esto, lejos de causar ningún daño a nuestro euskara, prestigie nuestra cultura y atraiga hacia ella a muchos que no conocen el idioma.

En cuanto al carácter de nuestra traducción, he intentado mantener un equilibrio dinámico entre la fidelidad al texto original y las exigencias de la cultura y de la lengua castellana en nuestro tiempo. A pesar del esfuerzo, no siempre habré cumplido con éxito este intento de transportar, no sólo el contenido, sino también el genio y el ritmo expresivo del original. Algunas veces he cortado las frases demasiado prolijas, descargándolas así de cierta pesadez y haciéndolas más asequibles al lector de hoy.

Notas

En cuanto a las notas, casi siempre se trata de citas bíblicas que en el texto original o no aparecen o están expresadas de forma incompleta. Yo las he completado, colocándolas en el texto castellano.

Vocabulario

Al final de la obra se puede encontrar un vocabulario bastante completo. Según advierto allá, este vocabulario se ciñe exclusivamente a la parte de la obra publicada, tanto en cuanto a los vocablos como en cuanto a su significado. No sólo recoge los vocablos más representativos del dialecto de los escritos de Lizárraga, sino también los que constituyen el patrimonio común de la lexicología del euskara, así como también los numerosos erderismos de que adolecen los textos del autor. De esta manera he intentado contribuir a la reconstrucción de la masa lexicológica de un hombre culto en los siglos dieciocho y diecinueve en el ámbito del dialecto de la zona de Pamplona. De todas formas, una elaboración más completa del vocablo de Lizárraga deberá aguardar la publicación de otros escritos suyos. A ello contribuirán también otras aportaciones, como la última tan valiosa del P. Policarpo de Iráizoz.

Para terminar diré que esta obra quiere ser un homenaje a Lizárraga, que en vida no pudo ver la publicación de ninguno de sus escritos. Creo que el mundo cultural vasco tiene motivo suficiente para estarle agradecido. Se ha de evitar, es verdad, el peligro de encumbrarlo ahora con exceso; pero también el error de infravalorarlo por las limitaciones de su euskara o del contenido temático de sus escritos.

En lo que a mi trabajo respecta diré, que he llenado así un vacío que sentía en mi vida. En efecto, por causa de mi dedicación al estudio y a la enseñanza de otras disciplinas, no había tenido la oportunidad de prestar una contribución científica a mi lengua materna y al campo de la cultura vasca. Con éste y otros próximos trabajos tengo la sensación de estar saldando, aunque de una manera modesta, una deuda que me pesaba.

Pienso que la publicación de los escritos de Lizárraga tiene un doble valor, uno histórico y lingüístico el otro. En cuanto a su valor histórico, es muy valioso el caudal de datos que, sobre la vida y las costumbres de nuestro pueblo, nos puede brindar un hombre que vivió siempre en contacto directo con las gentes del campo. Respecto a esto, otros escritos de Lizárraga, que algún día verán también la luz, son más ricos que éste que publicamos. Y en cuanto a su valor lingüístico, nos ayudan a aproximarnos más al conocimiento de uno de los dialectos que, a principios del siglo diecinueve todavía, era uno de los más extendidos. Al tratarse, por otra parte, de un escritor navarro, el recuerdo de su figura y de su obra puede contribuir a despertar en muchos sectores la conciencia euskaldun de nuestro pueblo navarro, muchas veces injustamente ignorada, olvidada o menospreciada.

Finalmente quiero decir, que la publicación de esta obra concuerda con el espíritu y el esfuerzo actuales de Euskaltzaindia. En efecto, Euskaltzaindia pretende salvaguardar el principio de la unidad, pero sin olvidar nunca la riqueza de las variedades dialectales. Sólo así se podrá garantizar el futuro vivo de nuestra lengua.